

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



URUMEA FESTAK

Udako oporrak bukatzeko, segi festan

Txupinazoa 16:00etan botako dute Ergobian, eta Portun, 12:00etan.

FESTA giroan murgilduko dira gaur, Ergobia eta Portu auzoetan. Ergobian, 16:00etan hasiko dira jaiak, haurrentzako makina bat ekintzarekin; tartean, apar festa, puzgarri eta txokolatadarekin. Afariaren ondoren, zezen suzkoa izango da ohi bezala, eta gero, Penthatloi ikusgarria, puntako kirolari eta auzotarren artean. Astelehenera arte luzatuko dira festak.

Portun, berriz, 12:00etan botako dituzte suziriak, baina lehendik umeentzako makina bat ekintza izango da, eta baita arratsaldean ere. Ohiko lorontzi lehiaketa eta sardin jaterik ez da faltako; ezta musika eta magiarik ere. Igandera arte, etenik ez! ||

ERGOBIAKO JAIK

12:00, Jaietako idi eta zaldien pisaketa.

16:00, Jaien hasiera. Haur jolasak, puzgarriak, apar festa, DJ Aros eta txokolatada txurroekin. Tartean, auzoko Dynamic dantza taldea.

21:00, Luma gorri oilasko jatea, entsalada eta gazta, inxaur eta irasagarrarekin. Txartelak, karpan (helduek 20 euro eta umeek, 12).

23:15, Zezen suzkoa

23:30, Ergobiako Penthatloia. Xabier Orbegozo (Arria V), Xabier Zaldua, Leire Astiazaran eta Itxaso Onsal, auzokoena kontra.

00:30, DJa karpan.

PORTUKO JAIK

10:00, Marrazki eta pintura lehiaketa.

11:00-13:30, Haurren parkinga: puzgarriak, parke txikia, ohe elastikoak, olla edo eltzea.

11:30, Txapeteri lore eskaintza.

12:00, Jaietako hasiera, suziri, buru-haundi eta txistulariekin.

13:00, Marrazki erakusketa.

16:00-19:00, Haurren parkinga.

17:00, Haur jolasak: zaku karrerak, lokotxak, aulki jokoa, ura eta irina...

18:00, Txapeteren omenez, lorontzi lehiaketa eta txokolatada.

20:00, XXIX. Sardin jate herrikoa.

23:00, Andoni magoa, Argentinatik. **Ondoren**, Puro Relajo musika taldea.

HERNANI SAHARA

Buelta Hernanitik Saharara, etxetik etxera

Santa Klara irlan pasa zuten atzo eguna, udara Hernanin pasa duten bost haur sahararrek. Bezperan agur festa egin zuten. Gaur, etxerako bidea hartu dute, Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetara.

UDARA hasieran etorri ziren Jadya, Hayat, Fatma, Mansur eta Said Hernanira, Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetatik. Bost haur sahararrek bertan pasa dute udara, basamortuko berotik ihes egin, mediku azterketak egin, elikadura eta osasuna zaindu, eta kulturen arteko elkartruketa sustatu ahal izateko.

Oso gustora ibili dira, baina herrimina ere izaten dute. «Etortzea gustatzen zaigu, baina etxera bueltatzeko gogo ere badaukagu, familia ikusteko», dio Hayatek. Etxera bueltatuko dira, baina hemen bigarren etxea utzita. Gaur abiatuko dira.

«Dena gustatzen zaigu!»

Bigarren etxe honetara bueltatzeko gogoarekin joango dira, ordea, etxera ere. Hain zuzen, Hayat berak kezka pixka bat agertu du, Euskal Herrira etorri den azken urtea hau izan daitekeelako, 12 urte dauzkala eta. Aaiun kanpamenduan dauzkan anai-arreba txikiak txanda dela dio, haiek oraindik ez baitira bertatik aterata.

Jadyak, berriz, anaia bat dauka Bilbon. Hayat baino urtebete gazteagoa denez, zalan-tza egiten badu ere, berriro etorriko dela uste eta espero du. Pentsamendu horrekin dijoa bueltan, Smara kanpamendura. Hara dijoa bueltan, 9 urteko Fatma ere.

Bi mutilak, berriz, Mansur eta Said, Auserd kanpamendukoak dira, eta harmana urte dauzkate. Aurreneko aldia izan dute Hernanin, eta gaitzuzteko bezala, gustora ibili direla diote.



Agur festa eginda utzi dute Hernani, udara bertan pasa duten sahararrek.

Gehien zer gustatu zaien esaten, hala ere, ez dute asmatzen. «Dena gustatzen zaigu! Igerilekuetan ibili gara, eta hondartzan, eta...». Haizea begiralearekin ibili dira hara eta hona, goizero, udaletxeak haientzat antolatzen dituen goizeko udalekuetan. Nahia, Jadyaren ahizpa hernaniarra ere, beraiekin ibili da askotan.

Janariaren inguruan galdetuta, errazago asmatzen dute, zer gustatzen zaien eta zer ez, esaten. «Makarroiak,

arroza, pizza, xerra, oilaskoa... Dena gustatzen zaigu! Baina, batez ere, pizza! Eta purea eta arraina ez zaizkigu gustatzen...», diote. «Neri bai!», dio Jadyak. Jaki horietako askorekin ez dira harritu, errefuxiatu kanpamenduetan ere izaten baituzte, hemendik bidalita. «Makarroiak jaten ditugu han ere, baina ez daukagu hemen jartzen zaion gazta hori; hemengoak goxoagoak dira!», dio Fatmak. Urari ere aldea nabaritu diote: «desberdina da

«Makarroiak jaten ditugu han ere, baina ez daukagu hemen jartzen zaion gazta hori; hemengoak goxoagoak dira!»

«Etortzea gustatzen zaigu, baina etxera bueltatzeko gogo ere badaukagu, familia ikusteko»

hemengo ura; hobea, Sahara-koarekin alderatuta».

Etxera, eta eskolara

Oroitzapen eta bizipen goxoak gogoan dituztela hasi dute gaur, errefuxiatu kanpamenduetarako buelta. Oraindik opor egun batzuk izango dituzte, eta gustora kontatuko diete etxekoei, hemengo berri. Adibidez, zein ausart ibili diren uretan igeri! Atzo bertan, Santa Klara irlan pasa zuten eguna. «Ez daukagu batere beldurrik!». Haizea, begiraleak ere, halaxe dio. «Ausartak dira, oso! Said kontu haundia-goarekin ibili da, hala ere...». Etxean zer kontatu, norberaren esku!

Azken opor egunekin gozatu ondoren, ordea, eskolan hasi beharko dute. «Oso gogorra da, eta asko ikasi behar izaten dugu!», diote. Ikasturtea xamurragoa egingo zaie, hala ere, berriro Hernanira etorriko direla pentsatuta. Hayat da, itzultzeko aukerarik izango ote duen oso seguru ez daukana. «Alá, edo behar denari eskatuko diogu». ||

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko



Bero egingo du. Haizeak hego ukitu hartuko du, eta termometroak altzaraziko ditu. Arratsaldean kostaldean brisa pixka bat mugituko da. Zenua urdin egongo da. **Min.16° / Max.32°**



Bero egingo du berriro. Hala ere, arratsaldean haizea aldatu, eta freskatzera egingo du. Era berean, bero lainoak agertuko dira. **Min.19° / Max.32°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI BIZI BARATZEA

Elikadura eta lore eta landareen kontsulta ardatz, Bizi Baratzean

Argia aldizkariaren Bizi Baratzea proiektuaren barruan, hitzaldi, zuzeneko kontsulta eta jaki dastaketa antolatuta dira Orona Ideon, irailaren 7rako.

BIZI Baratzea proiektuaren barruan, eguneko festa berezia antolatuta du Argia aldizkariak, irailaren 7rako. Orona Ideon, 11:00etan hasita, hitzaldiak, lore eta landareen inguruko aurrez aurreko kontsulta eta jaki dastaketa izango dira, jasagarritasuna oinarri.

Diametro 200, Lur Garden, Karabeleko eta Bizi Baratzea Hitzaldiak izango dira elikadura osasuntsuari eta bertako

eta garaiko ekoizpen ekologikoari buruzkoak.

Aurrena, Diametro 200 jatetxeko Fede Pacha eta Iñigo Marquet, Orona Fundazioko Garapen Zuzendaria ariko dira, ekoizle txikien eta nekazaritza ekologikoaren inguruan. Gero, Karabeleko Oier Iurramendi hernaniarra, ekonekazaritza eta errehabilitazio psikosozialerako zentroaz arituko da, eta segidan, Lur Gardeneko Iñigo Segurola, paisajismoaz.

Zuzeneko kontsulta eta luntxa

Hitzaldiekin bukatzeko, Jakoba Errekondo paisajista eta agronomoa, Bizi Baratzea proiektuaz ariko da. Era berean, jarraian, Iñigo Segurolarekin batera, bertaratutakoek lore eta landareen inguruan dituzten zalantzak argituko dituzte zuzenean, aurrenekoz.

Bukatzean, bertako eta garaiko produktu ekologikoekin luntxa emango da. ||



Salaberria, Mujikarekin, Aste Nagusiko txapelketa irabazita.

HERNANI ESKU PELOTA

Salaberriak etxera, Aste Nagusiko txapela

Donostiako Trinitate plazan jokatuta da esku pelotako Aste Nagusia Txapelketa, eta Iker Salaberria jubenila izan da txapeliduna, Andoaingo Gazteleku elkarte-ko Jurgi Mujika bikote zuela. Finalean 18 eta 17 irabazi zuten De la Torre eta Zalakainen kontra, ondo jokatutako partidua. Aurrelari hernaniarrak txokora egindako tantoarekin bukatu zen lehia, gainera. Finalera iristeko, aurretik Aranburu eta Zalakaini irabazi zieten, 18 eta 4. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Azulana, autogestioa eta kultura berri bat

Kurtsoa ate joka dugun honetan, beste behin jarri gara datoen erronken inguruan hausnartzen, zer ote dugu aurten egiteko. Urteak dira jende ezberdina gaztetxean lanean dabilela eta ez dugu geratzeko asmorik. Baina ezinbestean jarri behar dugu arreta egiten dugun horretan, eta aurrera pausoak emateko balio dezan bermatu, bizi eredu berri bat sortzera bidean.

Gaztetxe zein gazte asanbladan betidanik izan dugu lanerako gogo eta urtetan luzatu den proiektua da horren testigu, baina kapitalismoak eza-

rritako bizi ereduaren aurrean bestelako erritmo bati erantzuteko borondatea egon da, lan egiteko beste modu bat, etekin pribatuaren aurretik interes kolektiboak jarritz. Autogestioa izan da urte luzez lanerako tresna, merkatuaren logikaren gaintik gure beharrak asetzeko apustua eta horretan berresten gara. Kultura berri batek izan behar du lanerako oinarri, elkartasunean, autogestioan, konpromisoan, borondate iraultzailean eta umiltasunean oinarritua. Hori da gure helburua.

Baina lanerako baldintzak izatea ere, lanaren ondorio da eta espazio eta tresna propioak behar ditugu horretarako. Gaz-

tetxea dugu bat, baina gaur egun gero eta ageriago ari da geratzen gure buruak defendatzerako orduan, erresistentzia mekanismoak garatu beharrean gaudela. Desjabetuok saretzeko ordua dugu.

Iraila gainean izanik kurtso berriari ekiteko baldintzak jarri beharrean gaude, eta horretarako abuztuaren 27an ekingo diogu gaztetxea atontzeari. Lanerako gogoz zaudetenok, bizitza beste era batera antolatu nahian zabilzatenok, gaztetxeko ateak zabalik dituzue.

Axier Mendizabal Goñi,
Hernaniko Gazte
Asanbladako kidea

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Ostiraleroko zita gogora ekarri dute berriro ere euskal preso eta iheslarien senide eta lagunek. Gaurkoan, Zinkoenean egingo da kontzentrazioa, iluntzeko 20:00etan. ||

HERNANI ANTZERKIA

'Valium' ikusteko, azken aukerak

Udara honetako ia ostiral eta larunbatero, Valium obra antzestu dute Vito Rogado eta Naiara Arnedo aktoreek, Osiñaga auzoan, Errotaran Goikoa baserrian antolatutako aire libreko Valiumteatro antzokian. Larunbat honetan ere berriro izango da antzerkaiz gozatzeko aukera, eta datorren asterako azken saioa prestatzen ari dira. Sarrerak 15 euroan erosi daitezke 649 874 184 telefonoan edo javialonso@mac.com helbide elektronikoan. Ateak 18:00etan irekiko dituzte, eta antzezlanak 19:00etan hasiko da. Ondoren, barbakoa egingo da. ||

HERNANI OSIÑAGA

Nafarroara egun pasa joateko, izena

Udara borobiltzeko, auzotarren artean egun-pasa egitea erabaki dute Osiñagako Auzo Elkarteak. Irailaren 1ean Nafarroara joango dira, Leireko monasterioa, Xabierko gaztelua eta Zangotza herria ezagutzera. Autobusa elkarrekin ordainduko du, baina bazkaria, norberak; 30 euro izango dira. Parte hartzeko izena eman behar da, beranduenez, astelehenean. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA
Juan Miguel Grijalba Izaguirre
2017ko abuztuaren 23an hil zen
VI. URTEURRENA
Pedro Grijalba Izaguirre
2013ko ekainaren 13an hil zen
ETXEKOEN PARTEZ
Gure bihotzetan zaudete
Hernanin, 2019ko abuztuaren 23an

XLV. URTEURRENA
Ignacio Albistur Bicandi
1974ko abuztuaren 21ean hil zen
XXVIII. URTEURRENA
Angeles Bermudez Ribera
1991ko azaroaren 6an hil zen
ETXEKOEN PARTEZ
Gure bihotzetan zaudete
Hernanin, 2019ko abuztuaren 23an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako.

Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA